


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2004ko ABUZTUA

Euskal AEko industri jarduera %6,9 hazi zen 2004ko abuztuan

2004ko lehenengo zortzi hilabeteko bilakaerak %4,8ko hazkundea izan zuen, 2003ko aldi beraren aldean.

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2004ko abuztuan, %6,9 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, urte arteko tasan. Balio homogeneotan, egutegiaren eragina zuzenduta, urte arteko aldakuntza %1,7ra iritsi zen. 2004ko lehenengo zortzi hileko hazkunde metatua %4,8an kokatu zen balio absolututan, eta %3,3an balio homogeneotan.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1998-2004



(*) 2004ko uztail-abuztuko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: EUSTAT

2004ko abuztuan, urte arteko aldakuntzarik positiboak, balio absolututan, sektore hauei egokitu zitzaizkien: *material elektrikoa* (%22,8), *energia elektrikoa*, *gasa eta ura* (%21,4), *zurgintza* (%17,2), *ez-metalezko industria* (%13,5) eta *kautxua eta plastikoa* (%12,8) arloei, besteak beste. Urte arteko hazkunde-tasa negatiboak, berriz, honako hauek izan zituzten: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-42,5), *garraio-materiala* (%-20,5), *elikagai-industria* (%-13,6), *ehungintza eta jantzigintza* (%-1,0) eta *petrolio finntzea* (%-0,1) arloek, batik bat.

Urteko lehenengo zortzi hilabeteetan, aurreko urteko aldi beraren aldean, hazkunde-tasa handienak sektore hauei egokitu zitzaizkien: *energia elektrikoa*, *gasa eta ura* (%23,9), *petrolio finntzea* (%15,7), *material elektrikoa* (%9,8), *kautxua eta plastikoa* (%6,3) eta *garraio-materiala* (%4,7) arloei, besteak beste. Tasa negatiboak, berriz, honako hauek besterik ez zituzten izan: *larruaren eta oinetakoen industria* (%-20,3), *metalezko eta ez-metalezko meak* (%-11,0), *ez-metalezko industria* (%-9,9), *bestelako manufakturak* (%-6,6) eta *elikagai-industria* (%-0,7) arloek.

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenean, 2004ko abuztuan, igo egin ziren *energiaren* urte arteko tasa (%13,7) eta *bitarteko ondasunena* (%12,6), baina *ekipo-ondasunak* %2,8 jaitsi ziren eta *kontsumo-ondasunak* %4,1, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* (%-5,2) jaitsierak eraginda, *kontsumo-ondasun iraunkorrek* (%1,3) igo egin baitziren.

Egutegiaren eragina zuzenduta, *energiaren* urte arteko tasa %10,9ra iritsi zen eta *bitarteko ondasunena* %6,8ra. *Ekipo-ondasunak*, aldiz, %8,3 jaitsi ziren eta *kontsumo-ondasunak* %7,6 eta honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* %8,2 jaitsi ziren eta *kontsumo-ondasun iraunkorrek* %4,9.

Urteko lehenengo zortzi hilabeteetan, balio absolututan, *energiak* %21,5eko hazkundera metatu zuen, *bitarteko ondasunek* %3,9koa, *ekipo-ondasunek* %3,1ekoa eta *kontsumo-ondasunek* %0,3koa. Azken horiek honela banatu ziren: *kontsumo-ondasun iraunkorrek* %-1,6ra iritsi ziren eta *ez-iraunkorrek* %1,2ra.

Lurralde historikoka, Indize Orokorren urte arteko bilakaerek erritmo desberdinak izan zituzten; balio absolututan, %9,8 hazi zen Bizkaian, %4,2 Araban eta %4,0 Gipuzkoan. Urteko lehenengo zortzi hilabeteetan hazkunde metatuaren tasa handienak Arabak (%8,5) lortu zituen, ondoren Bizkaiak (%4,6) eta azkenik Gipuzkoak (%2,8).

Taula: 2004ko ABUZTUA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	2004		2003	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra: Euskal AE	6,9	1,7	6,2	9,3
Araba	4,2	-1,1	-0,1	2,7
Bizkaia	9,8	4,8	10,6	13,3
Gipuzkoa	4,0	-1,3	3,5	7,1
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-4,1	-7,6	-1,3	0,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrek	1,3	-4,9	-4,0	-1,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	-5,2	-8,2	-0,7	1,1
Ekipo-ondasunak	-2,8	-8,3	0,2	2,6
Bitarteko ondasunak	12,6	6,8	0,9	3,1
Energia	13,7	10,9	42,0	43,3

(*) egutegiaren eragina zuzenduta

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 017 514. Faxa: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp